



III Milaka lagun bildu ziren Sagastialdeko karpako kontzertuak entzutera, bai ostiralean eta bai larunbatean ere. sagarrondotik



III Herri kirolen saioan giro ederra izan zen, nahiz eta Aimar Irigoienek ez lortu bere marka hobetzea. gari garaide / argazki press



Ekaitza kanpoan, baina sagarrondoan epel

Asteburuko eguraldi txarrak ez du hoztu Sagarrondotik'04 jaialdiko giroa, eta milaka lagun ibili da ekitaldietan. Gustura gelditu dira antolatzaileak

III Estitxu Elduaen

Aspaldiko ekaitzik zuriena bota du asteburuan Euskal Herrian, Elurra, kazkabarra, izotza eta hotza izan dira nagusi, eta base-ritar bat baino gehiago kezkatuta dago bere produktuak horrek ekar ditzakeen ondorioak direla eta. Bada, sagarrari behintzat, ez dio kalterik egin. Sagarrondotik'04 jaialdiari, behintzat, ez. Tenperaturak tenperatura, bero ibili dira sagarra eta sagarrondoa asteburuan, bai Hernaniko kontzertu gunean, bai Usurbilgo frontoian, eta baita Astigarrako plazan ere. Horregatik, gustura daude antolatzaileak jaialdiak izandako arrakastarekin: «Eguraldiak lagundu ez duen arren, gure aurreikuspen guztiak bete baitira».

Kontzertuak izan dira, askorentzat, Sagarrondotik'04 jaialdiko ekitaldi garrantzitsuenak; jendetza handiena bildu dutenak bai, behintzat. Ostiral arratsaldean botatako elur eta kazkabarraren ondorioz jendeak atzera egingo ote zuen beldur ziren antolatzaileak, baina, azkenean, milaka lagun gerturatu ziren Sagastialdeko karparen aterpera, eta giro itze-

la izan zen bai ostiralean eta baita larunbatean ere. Kanpoko ekaitzak handia izan bazen ere, karpa barruko musikak gain hartu zien azkenean, eta berotu egin zen giroa karparen barruan.

Halatsu gertatu zen Usurbilen ere larunbat arratsaldean. Herri kirolen lehiaketa kanpoan izanagatik, berotu egin zen giroa herriko frontoian, bai parte-hartzaileen ahaleginagatik eta baita bertaratutako jendearen txalo eta

oihuengatik ere. Hotz samar Aimar Irigoien gelditu zen, marka ontzeko saioan kale egin zuelako, baina, ikusleen animoel esker, apur bat epeldu zen Errezilgo gaztearen gogoia ere.

Eta igandean, beste behin, jaten eta edaten parekorik ez dugula erakutsi genuen euskaldunok Astigarragan. Eguraldia berriro ere kontra, hotza, eta busti tantak nagusi eguerdian, baina, halere, beteta egon zen Euskal Herriko

II. Sagardo Mostraren ingurunea: 60 sagardogileren zukuak dastatzeko parada ondo baino hobeto aprobetxatu zuten bertaratutakoek, eta edari hotzaren aitzakiarik ez izateko, taio bero-beroak jateko modua ere izan zuten.

Sagar eta sagarrondo gogorrak daude, hortaz, Euskal Herrian; aspaldiko ekaitz gaiztoenari aurre egiteko gai dela erakutsi dute, behintzat, asteburuan. Sagarrondotik ibiltzea askori gustatzen zaiola argi gelditu da aurten ere. Sagarrondotik baino sagardoaren atzetik ibiltzen abila goak direla usteko du askok, baina, beno, euskaldunak eguraldia txarrekin ez direla otzantzen behintzat argi gelditu da. Eta ederki eskertu dute hori Sagarrondotik'04 jaiko antolatzaileak. Eskerrak eman dizkiete asteburuko ekitaldietara gerturatutako guztiei, eskerrak euren parte hartzeagatik eta tenperatura izoztua berotzen laguntzagatik.



III Bapo jan eta edan zuten II. Sagardo Mostrara bildutakoek. gari garaide / argazki press

